

BALIO PROPOSAMENA

• Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure taldean boligrafoei buruz hitz egiten aritu gara, gazte askok gure egunerokoan boligrafo asko erabiltzen ditugu, horiek galdu edo gastatu egiten ditugu, eta hau gertatzen zaigunean beste bat erosten dugu eta, horrela, asko kutsatzen dugu. Horregatik sortu nahi ditugu boligrafoak plastiko birziklatuarekin eta boligrafo normal batek baino gehiago irauten dutenak, ekonomia zirkularra bermatuz. Gainera, kolorez aldatzen diren boligrafoak sortu nahi ditugu argiarekin.

• Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure boligrafoak merkeak izango dira eta plastikozko objektu (tapoiak, plastikozko botillak,...) batzuk ekartzen balitzaizkigu (minimo bat), haien truke boligrafoak emango ditugu. Plastiko objektu hauekin boligrafo gehiago ekoiztuko ditugu eta ekonomia zirkularra bermatuko dugu. Bestetik, boligrafoen diseinua praktikoa eta originala izango da.

Boligrafoek hainbat diseinu edukiko dituzte, batek erregela bat izango du (marrazki bezala), beste bat tabla periodikoa, beste bat biderketa taulak,...

